

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

384/2025 Foru Agindua, uztailaren 2koa. Adieraztea interes publikokoa dela Navaridasko udalerriko 7 poligonoko 26 lurzatian, lurzoru urbanizaezinean, naturaren interpretazio zentro ireki bat egiteko proiektua, Arabako Errioxako Kuadrillak sustatua

Arabako Errioxako Kuadrillak Navaridasko urmaela ingurumen aldetik lehengoratzea eta naturaren interpretazio zentro irekia sortzea sustatzen du, zeina Navaridasko udalerriko 7 poligonoko 26 lurzatian jartzea aurreikusi baita, lurzoru urbanizaezinean.

Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 euskal Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Proiektuan jasotakoaren arabera, egurrezko eraikin txiki bat eraiki nahi da, hegaztien behatokia izan dadin, 37 m² inguruko azalera eraikia izango duena, egurrezko plataforma baten gainean, eta haren ingurua ingurumen aldetik lehengoratu nahi da; hori guztia La Laguna aurkintzan dagoen landa finka batean, Navaridasko udalerriaren iparraldean.

Eraikinean, leihoetarako bao egokiak irekiko dira, barne erabileraren arabera, eta estalki inklinatu bat instalatuko da, lorategi izango dena, herriaren eraikuntza jarraibideei jarraituz, multzoa integratuta eta bolumen bakar gisa gera dadin.

Udal arkitektoak egindako txostenean jasota dago eraikina hartuko duen lurzatia lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dagoela, eta 3. zona, "Erabateko babeseko eta ingurumen intereseko baso zona" gisa kalifikatuta, Navaridasko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) 1. planoaren arabera. Txostenean, halaber, jasotzen da kokalekuari "Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten areak" baldintza gainjarriak eragiten diola, baina ohartarazten da planoaren legendako akats bat izan daitekeela; izan ere, Arabako Errioxako Lurralde Plan Partzialean (LPP), eremu hori bera "Area higigarriak edo higatzeko arriskua dutenak" gisa agertzen da.

Navaridasko HAPOren arauen arabera, 3. zona baso lurzoruak edo baso bihur daitekeen lurzoruak osatzen du, eta, kokapen ezaugarri fisikoak edo ekologikoak direla eta, eraikuntza edo urbanizazio jarduketa orotatik babestu behar da. Hala ere, arkitektoak jakinarazi du, eremu bakoitzean baimendutako erabilera eta jardueri buruzko 137. artikuluan xedatutakoaren arabera, 3. zona horretan baimendutako erabilerak eta eraikuntza jarduerak direla ikerketa eta dibulgazio zientifikoarekin, ingurumen hezkuntzarekin eta espazioaren babesarekin lotutako eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak, aztergai dugun kasuan bezala.

Era berean, baimendutako eraikuntza erabilera bakoitzari esleitutako eraikuntza parametroei dagokienez, 138. artikulua jasotzen du, 3. zona horretan eta landa ingurunean kokatu behar diren onura publikoko eta gizarte intereseko eraikinetarako, parametro horiek libreak direla.

Bestalde, txosten teknikoak dioenez, ez da interes historiko-arkitektonikoko elementurik ikusten kokalekuan, ez eta honelakorik ere: presuntziozko zona arkeologikoak, 100 metrotik beherako distantziara ur ibilguak, 50 metrotik beherako tartean errepideak eta inguruan inbentariatutako landa bideak.

Nolanahi ere, adierazi du, Guardia-Arabako Errioxako eremu funtzionaleko LPPko 1a-1 zenbakiko maparen grafiaren arabera, "Area higigarriak edo higatzeko arriskua dutenak" baldintza gainjarriaren eraginpean egon daitekeela kokalekua.

Era berean, adierazi du interpretazio zentroa hartuko duen lursaila, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) arabera, "Nekazaritza nahiz abeltzaintza eta landazabala –Trantsizioko landa paisaia" kategorian sartuta dagoela, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hezeguneen LPSaren arabera, FP-1 kategorian ("Baso babeslea–Ingurunekeo sastrakak"), eta, batean zein bestean, erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizeek adierazten dutela onura publikoko eta gizarte intereseko erabilerak onargarriak direla lurzoru kategoria bakoitzean.

Eta, amaitzeko, adierazi du, aurkeztutako lizentzia eskaera izapidetzen jarraitzeko, Arabako Foru Aldundiak eman beharreko interes publikoaren adierazpenaz gain, proiektuak Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuaren baimena edo aldeko txostena izan beharko duela, B8A9 "Navaridasko urmaela" hezegune inbentariatuari eragiten baitio, paisaia interes bereziko eremua delako, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskumena du aztergai den espedientea ebazteko, bat etorritik Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 lege-gintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuan xedatutakoarekin.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzorian, "salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilerak batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira".

Bat etorritik 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeiguneko jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Bigarrena. Maiatzaren 9ko 279/2025 Foru Aginduen bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onespina ematea eta jendaurrean jartzeko 20 eguneko epea irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Argitalpena 57. zenbakian egin zen, 2025eko maiatzaren 23an. Horretarako emandako epean ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek, zeinak uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez behin betiko onetsi baitziren, aisialdi intentsiboko jardueratzat hartzen dituzte natura ingurunea interpretatzeko zerbitzu eraikinak, "aisia" erabilerak orokorrean txertatuta, eta, beraz, "nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko" lurzoruaren antolamendu kategorian onargarria den erabilerak edo jarduerak da, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan xedatutakoari lotuz.

Gainera, proiektuaren interes publikoari dagokionez, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak, III. kapituluaren 5. atalean ("Lurzoruaren erabilerak eta eraikuntza erabilerei lotutako jarduerak"), 42. artikuluan, honako hau ezartzen du: "Onura publikoko edo gizarte intereseko eraikin eta instalazioak.

1. Komunitate ekipamendu publiko edo pribatuarentako eraikuntzak eta instalazioak: ematen dituzten zerbitzuak, beren izaera eta ezaugarriengatik, nahitaez landa ingurunean kokatu behar dira, betiere aurrez erabilgarritasun publikoa edo gizarte interesa dutela adierazi bada.

2. Honako modalitate hauek sartzen dira hemen:

[...].

c) Ekipamendu soziokulturalak. Kultura sustatzeko edo artea sortzeko jardueretarako ekipamenduak sartzen dira hemen (museoak, interpretazio zentroak, bisitariak hartzeko guneak, informazioa ematekoak, eta abar).

Azpiegituraren berezko ezaugarriengatik kokatu beharra dago landa eremuan.

Era berean, Navaridasko urmaelaren ingurumen lehengoratzeari helburu duten esku hartzeetatik lehena den proiektu honen xedeak dira: batetik, funtsezko prozesu ekologikoak eta oinarritzko bizi sistemak iraunaraztea eta ekosistemek pertsonen ongizaterako eskaintzen dituzten zerbitzuak babestea; bestetik, biodibertsitatea kontserbatzea eta lehengoratzeari, habitat naturalak eta basafauna kontserbatuz, eta, beste batetik, bermatzeari herritarrak biodibertsitatearen garrantziaz herritarrak kontzientziazten direla. Helburu horiek guztiak Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeak adierazten ditu, eta honako hau xedatzen du 4.2 artikuluan: “[lege honen helburuak] lortzera bideratutako jarduerak onura publikokoak edo gizarte interesekoak direla deklaratu ahal izango da, ondorio guztietarako eta, batez ere, jabetza kentzeko ondorioetarako, jarduera horiek ondasun edo eskubideren batzuetan eragina izanez gero”.

Gauza bera dio Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legeak 5.2 artikuluan, natura ondareak, pertsonen garapenarekin, osasunarekin eta ongizatearekin duen loturagatik, betetzen duen funtzio sozialaren garrantzia nabarmendu ondoren.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Bat etorritz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin, adieraztea interes publikokoa dela Navaridasko udalerriko 7 poligonoko 26 lurzatian, lurzoru urbanizaezinean, naturaren interpretazio zentro ireki bat egiteko proiektua, Arabako Errioxako Kuadrillak sustatua.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatzeko udalaren lizentzia lortzeko beharra, eta ez du aurretik ezartzen udalak eman behar duen ebazpenaren edukia.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean; edonola ere, berraztertze errekurtsioa jarri ahalko zaio, nahi izanez gero, egintza eman zuen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin, edo egoki deritzon beste edozein errekurtsio ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 2a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA